

**BIZKAIA**

A. Onaindia

LITURJI TA EUSKERA

Lengoan, itzaldi baten ostean, apaiz bi ebiltzan bero-bero euren artean autuan. Naiz-ta gizalegea pizkat urratu, urreratu nintzakien eta arein ezpenetatik eriona jaso nairik, ardura bizitan egon nintzan luzaro. Ba-eban gatza aren arteko izketak. Eta ona nik areikandik jasotako zerbait, zuok be, «Karmel» irakurleok jakin dagizuen.

—Kezkaz beterik nabil —iñoan bata— geure izkuntzari buruz. Istoriaren gurme ta laino artetik, zelan ez dakigula, jagia dogu euskera. Eta gaur, bai ilgo ez ilgo daukagu. Ardura bako askotxo ikusten dodaz neure inguruan, zabarrak, euskera galdu arren bost piper dautsenak. Eta nik itanduten dautzut: Guk ba ete dogu eskubiderik geurea jagoteko? Geiago: euskeraz zer betebear ete dogu? Il ez dedin, ezer egin bearrean ete gagoz?

—A zelako itaunak zureak! —dirautso besteak—. Olako dudan dagozanak ez dira gitxi; ba-dakit ori, zoritxarrez. Baiña ez leuke olakorik izan bear. Neuri be, araiñegun bertan, nik atso bati bere umetxoak zergaitik euskeraz egiten ez eban itandu neutsanean, erantzun eustan: «Umeak ba-daki euskeraz, apur bat beintzat, baiña zetako? Laster eskolara asiko da, ta dana aztuko yako. Ta gure izerdi guztiak alperrik». Argi dakusguna auxe: ezer ez egitea, itxitasuna, zabarkeria. Dana dala, zure itaunak ba-dau mamiña.

—Orixe, nik uste.

—Eta erantzungo dautzut, eta ez neurez erantzun be, oraintsu Barzelona'n ango kardenalak gai onetzaz egindako itzaldian datozen itz eta errazoiakaz baiño.

—A, bai, ba-dakit: itzaldi ori ango uriko «Jocs Florals» jaietan Jubany kardenalak egiña dozu.

—Orixe berori. Erri-izkuntza liturjian artu eban gaitzat. Eta iñoan: «Izkuntza guztiak artzen dauz ontzat Kristo'ren Eleizak, ez bakarrik zuzentasunak eskatzen dauvalako, baita artzain-eginbearrak ortara bultz-eraginda be.

—Zu arimazain zara ta ba-dakizu nik baizen ondo: ukatu eziña dogu: norbere izkuntza, berbetea, amak erakutsi euskuna da arimen biotz-izkuntzan, ez iñorenean, erakutsi ta adierazten dabe euren barrua, daukizun sentimentu ta barru-zauskadarik ixil beroenakaz.

—Egi au begipean izan dau Eleizeak. Lenago, eleizkizun guztietan ez. baiña mezatan beintzat latiña erabilten eban. Eta au Kristo'ren opa-ri orretan daukaguzan egi eta irakatsiak ulertu al izateko zoztor bat izan zala esan bearra daukagu. Erroma'n ospatu zan azkenengo Eleiz Batzar nagusiak, bera, erabagi barria artu eban, meza-emoille bakotxak bere erriko izkuntzan mezea emon daikela. Eta orrela egiten dogu.

—Guretzat erreztasun andia, bene-benetan. Gaurko mezak, kantuz, irakurgaiz eta bizitasun apur bategaz apainduta dagozanean, lengoak baiño askoz atsegiñago yakuz.

—Ez izan dudarik. Euskaldun erriari gaur euskeraz emoten yako bear dauana.

—Ba-dera, zoritxarrez, ortan oindiño muker samar dabilzanak. Ez dakit zergaitik. Politikagaitik, iñori miñik ez emotearren? Baiña toki batzuetan erri osoa daukie minduta, urteetan euki be. Legezko al da au? Nik ez dot uste, ta lenbaitlen erri-bidetik sartu bearra dabe olakoak be. Danok osotzen dogu erria; ez daiogun, ba, lauri eder izateagaitik, euni biotza odoletan ipiñi.

—Gogo onez jokatu ezkerro, gaur liburu ederrak daukaguz ortarako: eleizkizunak egiteko, meza, bateo, ezkontza ta penitentzi-sakramentuak emoteko, gaixoai laguntzeko ta abar, euskera errez eta garbian, Eleizearen izkuntzari dagokionez.

—Bai, Euskalerriko eleiz-batzordeak lan bikaiña burutu dausku azken urteotan. Erriak orain ederto parte artu daike zeremoni guztietan, euskeraz erantzun eta erabilliaz. Ez dago, ez, atxakirik euskeraz ez egiteko; gaur nai ba'dogu, lan asko egin gengike euskeraren onerako. Liturjian esku arturik, jakiña, gizon eta andrazko guztiok. Olan ez ete da euskeraz ikasten? Ez al yako eusten?

—Gaur egunean, atertu barik «kultura» itza darabilgu ezpanetan. Gizona osorik, gorputz-arima ta oituraz, landu ta jakituriz beteteari

Euskalerriko eleiz-batzordeak lan bikaiña burutu dausku azken urteotan...


## EGO-IPAR ALDETIK

deritxogu onela: «kultura» andikoa, «jakituri» zabalekoa esan oi dogu. Eta Euskalerriko Eleizak kultura bidean, esanak esan, pausu galantak emon izan dauz beti, bere liturji-zeregiñetan euskera sartuaz batez be-

—Guk lendik literatura ederra izan dogu erlejiño aldetik. Orretan ez dituzu lo euki euskaldun apaizak; naiz-ta gaur klerikalismuaren indarra ta olakoak aotan arroputz erabilli, erriaren alde iñok ezer egin ba'dau abadeak eta prailleak izan dira. Au zaratatsu esan geinke, artobero usain batik. Bekus, sifistu nai ez dauanak gure literatura. Eleiz barruan be, gure erriak bere kantu ta eleizkizunak euskeraz osotzen ebazan, gizal-

—Eskoletan, alan be, gerra aurreko Diputaziñoak jarrita geunkazan auzo-eskoletan izan ezik, ez dogu guk erarik izan euskeraz ikasteko. Eta au txit kaltegarri izan yako erri-izkuntzari. Gaur, egia da, legezko erabagi barriak erreztasun geiago erakusten dabe arazo onetan; baiña oindiño ez da ezertxo be egin. Zerbait egingo balitz, alik eta ariñen!

—Bitartean eleizea dozu lekurik egoki ta aukerakoena euskeraz gauzak ikasi ta eratzeko.



Bizkaiko elizak pozik eruan izan dau gizaldietan zear euskeraren gurutzeara. Indarberrituko al da orain eta geroan azkatasunaz eta geroz eruateko!!!

—Danok dakigunez, gaiñera, bizi garean une larri onetan beste gertakari barri baten aurrean aurkitzen gara: lendik be ba-ziran kanpotarrak gure artean, baiña gerra ostean iñoiz baiño geiago ugaritu yakuz. Or-emendik yatorkuzanak euren izkuntza ta kultura dakarskuez; lanbilla datozenak euren gizarte aparta dakarre, ziur asko.

## EGO-IPAR ALDETIK

Eleizeak ezin daike zuzentasunak eskatzen dauskulako, eleizkisunetan euskera albora iztea ontzat emon.

—Euskalerriko Eleizak ez ditu oneik bertan bera itxi; gizalegeak eta adeltasunak eskatzen dauanez, geienetan erderazko mezak eta eleizkizunak egin oi ditu oneintzat. Baita, eliz-artzaintzari dagokionez, Kris-toren dotriña ta irakatsiak euren izkuntzan emonaz, orreik be eliztar onak izan daitezcan alegeñak alegin egiten saiatu be.

—Eleizeak, baiña, ezin daike zuzentasunak eskatzen dauskulako, eleizkizunetan euskera albora iztea ontzat emon. Ona Jubany'k katalanentzat zer diñoan: «Auxe da —euren izkuntza, katalana— guk lur-zati onetan daukagun erentzi ta guraso-ondoko bikain eta guztiz gaiñekoena. Onexek adierazten dausku ondoen bertoko semeen kultura; onexek aitzin emoten dauskuz arein harru-sentipenak intziri bizian».

—Otan, gauzak argi jarri bearra dogu; ori ta guzti be Eleizeak ez dauala origaitik politikarik egiten; au politika dala diñoana ez da egiaren jabe. Onegaz ez dagi besterik Jaungoikoak geure izakeran ipiñi dabezan berezko balio batzuk aintzat artu ta indarra emon baiño. Au al da politika?

—Eleizeak gure artean zerbitzu ikaragarria egiten dautso erriari, naiz au erritar naiz eleiztar izan; baita gizarteko goi-mail agirietatik begiratuta be.

—Eta, zer deritxazu: euskal liturjiko textuak egokiak al dira?

—Nik baietz uste. Euskera onean, argi ta garbi dagoz geienak.

—Geienak diñozu?

—Irakurgai batzuk ba-dira oindiño illun samarrak; ez itzakaitik be, arin samar egiñak dagozalako baiño: puntu ta komak be euskeran garrrantzi aundia daukie, irakurteko batez be. Eta irakurgai batzuetan errez tope egiten dogu olako batzuekaz. Bizkaierazko itzulpenean «bere» «be» ordeaz erabilteak be ba-dau bere koska ta nekea. Bestelan ondo.

—Zuk ba-dakizu, nik uste, 1965'an Erroma'n ospatu zan eliz-bartzarrean, erri-izkuntza liturjian sartu ta itzulpenak egitea erabagi zan, zer esan zan: liturji-izkuntza barriak Liburu Santuetakoaren antza euki bear ebala. Otoitz, salmu ta irakurgai bizi-ariñak eskatzen zituan, zalantzarik bage.

## EGO-IPAR ALDETIK



Elizak bere eskua  
luzatu dio euskerari.



—Orixegaitik, ain zuzen be, literaturazko lan-sailla dituzu liturji-itzulpenak. Gaur bizi diran izkuntza guztien altzoan barria dan zerbait jarten dabe, eleiztarren biotzera itz-egin bear dauanaren er bait. Itzulpen literatura au, beraz, beste literatura lanen oiñarri izan bear dau.

—Aulki Santuak liturji-ospakuntzai erri-izkuntzaz eleiz-ateak zabal-tzean, itzulpenak zelan egiñak izan bear daben erabagi ta mugatu eban. Lanak berak eskaten dau au, baita bere elburu prestu ta bikaiñak be. Aita Santuak berak emon zituan bearrezko ziran pausuak. «Liturji-izkuntzak nai ta ez —esan eban— izan bear dau erri osoak aitutekoa, eta era berean, iragarri bear dituan gauza arrigarriak eskatu ta merezi dauana. Iges egin bei, ba, kaleko izkera apaletik, eta bedi eder ta bi-kain, biotz-sentimentuak duindu ta arimak Jainko-maitasunean sututeko lain dana».

—Izkuntza biziak onekin, au da, Eleizearen erabagi onegaz, oso abe-rastuta geratzen dira. Gure errian be, liturji-itzulpen barriak euskeraren muga ta ertzak zabalago egiten ditu, bai izkuntza aldetik eta bai gure erriaren siñismenari gagokiozala.

—Niretzat beintzat pozgarria bene-benetan Euskalerriko eleiza as-kotan meza entzutea. Arrigarria dogu! Gaur mezak ez dautsola ezer esa-ten diñoanak, ez dakit nun daukan zentzuna. Nire neuri beintzat ba-diñost zerbait.

—Eta niri!

Aita Onaindia

## LEMA, S. A.

Tornillo egillerik onena...  
NOZKI!!!

LEMA, S. A.

Tornillo xuxenak bear baldin  
badituzu...

LEMA, S. A.

Lantegi guzietan bear-bea-  
rrezko diran tornillorik pi-  
ñenak, egokienak eta bete-be-  
tekoak... EMENTXEN!!!

LEMA, S. A.

LEMA, S. A.

Avda. Bilbao

Bidal-tokia (apdo. 107)

Urrutizkiña (3 bide) 718240

EIBAR-GUIPUZKOA